




SCENTERIUM-TOPIC.-en egonaldi-programa

2026 Deialdiaren oinarriak

AURKIBIDEA

1. DESKRIBAPENA.....	3
2. DEIALDIAREN XEDEA.....	3
3. LAN-ILDOAK	3
4. EGONALDI-MODALITATEAK.....	4
5. TOPICEK ESKAINITAKO LAGUNTZAK.....	4
6. AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA.....	5
7. BALORAZIO-IRIZPIDEAK.....	5
8. BALDINTZA OROKORRAK.....	6

1. DESKRIBAPENA

Topic., Tolosako Nazioarteko Txotxongilo Zentroak *Sceniterium* deialdia ireki du: txotxongiloen eta objektuen antzerkiaren esparruan sorkuntza, ikerketa eta esperimentazio-prozesuak laguntzera bideratutako egonaldi artistikoen programa.

Sceniterium, **Topic**.en egonaldi-programaren berrirakurketa gisa sortu da, konpainiei, artistei eta kolektiboek lanerako, entzuterako eta laguntzarako espazio bat eskaintzeko helburuz; aldi berean, sorkuntza garaikidearen, ekoizpen materialaren eta ondare biziaren arteko harremana indartu nahi du.

Programak ideia nagusi bat du abiapuntu: egonaldia ez da espazioak lagatzeko denbora hutsa, baizik eta proiektu artistiko bat ikertzeko, probatzeko, eraikitzeko, partekatze eta hazteko markoa. Ildo horretan, *Sceniterium*-ek prozesuak lagundu nahi ditu, nahitaez emaitza final itxi bat eskatu gabe, eta sorkuntzaren funtsezko atal gisa balioan jarri nahi ditu bilaketa, entsegua, akatsa eta eraldaketa.

2. DEIALDIAREN XEDEA

Deialdi honen xedea *Sceniterium* egonaldi-programan parte hartuko duten proiektu artistikoak hautatzea da. Programa 2026ko irailetik hilabetetik abendura bitartean garatuko da.

Txotxongiloen antzerkian, objektuen antzerkian, maskaretan, lengoaia bisualetan, arte bizietan, performancean, diziplinariako sorkuntzan edo horiekin lotutako praktika eszeniko garaikideetan lan egiten duten konpainiak, kolektibo artistikoak edo sortzaile indibidualak aurkeztu ahal izango dira.

Hautatutako egonaldiek, proiektu bakoitzaren ezaugarrien eta zentroaren erabilgarritasunaren arabera, lanerako espazioak, laguntza artistikoa, teknikoa eta/edo ekoizpenekoa, prozesuaren zabalkundea eta proiektuari lotutako pieza material bat sortzera, garatzera edo ikertzera bideratutako laguntza espezifikoak izango dituzte.

Sceniterium ek ez du nahitaez emaitza final itxi bat aurkeztea eskatzen. Programak ikerketa, entsegu, bilaketa, akats, eraldaketa eta garapen artistikoko prozesuak balioan jartzen ditu, egonaldia lanerako eta laguntzarako espazio gisa ulertuta.

3. LAN-ILDOAK

Proiektuek honako ildo hauetako batean kokatu beharko dute:

Topic.Ondare / **Topic.Patrimonio**

Memoriarekin, ondarearekin, txotxongilogintza tradizionalarekin, iruditerikulturekin, jakintza materialarekin edo legatu eszenikoen eguneratze garaikidearekin elkarriketan dauden proiektuei zuzendua.

Topic.Lab

Ikerketa, esperimentazio, diziplina-gurutzaketa, berrikuntza dramaturgiko eta lengoaia eszeniko berrien esplorazio-proiektuei zuzendua.

Bi ildo horiek ez dira konpartimentu itxi gisa ulertzen; proposamenak antolatzeko eta **Topic**.en identitate artistiko eta ondarearekin lotzeko erreferentzia-markoak dira.

4. EGONALDI-MODALITATEAK

Sceniterium-ek hiru egonaldi-modalitate aurreikusten ditu:

Modalitatea	Iraupena	Orientazioa
Egonaldi laburra	1 eta 3 egun artean	Kontrastea, unean uneko laborategia edo hasierako ikerketa.
Egonaldi ertaina	3 eta 5 egun artean	Sorkuntza-prozesuaren fase jakin baten garapena.
Egonaldi luzea	5 eta 8 egun artean	Sorkuntza-, eraikuntza-, dramaturgia-, teknika- edo manipulazio-prozesuetan sakontzea.

Eskatutako modalitatea hautagaitzan justifikatu beharko da. **Topic**.ek egutegian edo iraupenean doikuntzak proposatu ahal izango ditu, espazioen erabilgarritasunaren, proiektuaren beharren eta proposamenak programarekin duen egokitasunaren arabera.

5. TOPICEK ESKAINITAKO LAGUNTZAK

Hautatutako proiektuek honako laguntza hauek izan ahal izango dituzte:

- **Topic**.eko lan-espazioen erabilera egonaldiaren aldian.
- Laguntza artistikoa, teknikoa eta/edo ekoizpenekoa.
- Pieza materiala sortzeko, garatzeko edo ikertzeko aholkularitza espezifikoa.
- Zentroaren ondare-testuingurura, museora, bildumara edo dokumentazio-zentrorara sarbidea, egokia denean.
- Prozesuaren zabalkundea **Topic**.en komunikazio-kanalen bidez.
- Irekiera publikoa, prozesu-erakustaldia, solasaldia, tailerra edo bitartekaritza-jarduera egiteko aukera.
- Balizko lotura **Topic**.en programazioarekin, Titirijai jaialdiarekin edo zentroko beste programa batzuekin, betiere aldean arteko adostasuna badago.

Laguntza horien zehaztapena hautatutako proiektu bakoitzarekin adostuko da, egonaldi-modalitatearen, prozesuaren beharren eta eskuragarri dauden baliabideen arabera.

6. AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

1.-Honako informazio hau eskatuko da, dossier formatuan:

- Konpainiaren, kolektiboaren edo artistaren datuak.
- Proiektuaren arduradunaren datuak.
- Ibilbide artistiko laburra.
- Proiektuaren deskribapena.
- Aurkezten den ildoak: **Topic.Ondare** / **Topic.Patrimonio** edo **Topic.Lab**.
- Proiektuaren egungo fasea.
- Egonaldiaren helburuak.
- Eskatutako modalitatea: laburra, ertaina edo luzea.
- Egutegi-proposamena edo erabilgarritasuna.
- Espazio, teknika, material edo laguntza-beharrak.
- Sortu, garatu edo ikertu beharreko pieza materialaren hasierako deskribapena.
- Aurreko lanen material grafikoa, ikus-entzunezkoa edo dokumentala.

2.-Proiektuaren dossierraz gain, konpainiek, kolektiboek edo artistek **Topic**.en webgunean eskuragarri izango duten izen-emate orria bete beharko dute. Inprimaki hori beharrezkoa izango da hautagaitza behar bezala formalizatzeko.

Topic.ek informazio osagarria edo elkarrizketa bat eskatu ahal izango die hautagaitza finalistei, beharrezkotzat jotzen badu.

7. BALORAZIO-IRIZPIDEAK

Proiektuen hautaketa kultura-kudeaketan, sorkuntza garaikidean, arte eszenikoetan, kultur ekoizpenean eta proiektu artistikoen bidelaguntzan ibilbide zabala duten pertsonen osatutako batzorde batek egingo du.

Hautaketa-batzordea honako kide hauek osatuko dute:

Idoya Otegui, **Topic**.en sortzaileetako bat, zentroko zuzendaria hamarkada batez baino gehiagoz eta gaur egun RITTOKo lehendakaria. Bere parte-hartzeak zentroaren ibilbide historikoari, txotxongiloen eta objektuen antzerkiaren eremuari eta sektoreko sare profesionalen testuinguruari lotutako begirada ekarriko du.

Santiago Eraso, Artelekuko zuzendari ohia, kultura-proiektuen kudeaketan, zuzendaritzan eta bidelaguntzan ibilbide zabala duena. Donostia/San Sebastián 2016 Europako Kultur Hiriburuko kultura-zuzendaria izan zen, eta sorkuntza garaikideari, bitartekaritza kulturalari eta diziplinari prozesu artistikoei lotutako ikuspegia ekarriko du.

Imanol Otaegi Mitxelena, 2018tik Etxepare Euskal Institutuko Euskal Kultura Sustatu eta Hedatzeko zuzendaria. Ikus-entzunezko Komunikazioan lizentziatua da, eta ibilbide zabala du nazioarteko proiektuaren kultur proiektuen ekoizpenean eta koordinazioan. Donostia/San Sebastián 2016 Fundazioan, ETBn,

Donostia Zinemaldian eta arte eszenikoekin zein ikus-entzunezko sektorearekin lotutako hainbat proiektutan lan egindakoa da.

Amaia Iriondo Lozano, **Topic.**eko programa eta ekoizpeneko teknikari arduraduna. Egonaldien bidelaguntzari, ekoizpenari eta garapenari dagokionez, ikuspegi operatiboa, teknikoa eta bideragarritasunari lotutakoa ekarriko du.

Ainara Martin Blanco, **Topic.**eko zuzendaria. Zentroaren interes estrategikoei, kultur ildoei eta programak erakundearen proiektu orokorrekarekin duen koherentziari lotutako begirada ekarriko du.

Hautagaitzak honako irizpide hauen arabera baloratuko dira:

Irizpidea	Puntuazioa
Proiektuaren kalitate artistikoa eta koherentzia	30
Topic.Ondare / Topic.Patrimonio edo Topic.Lab ildora egokitzea	15
Ikerketa eszeniko, material, dramaturgiko edo bisualaren interesa	15
Bideragarritasun teknikoa, denborazkoa eta ekonomikoa	15
Proposatutako pieza materialaren interesa eta egokitasuna	10
Topic.en ondarearekin, museoarekin, publikoekin edo testuinguruarekin elkarriketarako gaitasuna	10
Konpainiaren, kolektiboaren edo artistaren ibilbidea, proiektzioa edo berezitasuna	5
Guztira	100 puntu

Hautagaitza bakoitzaren banakako balorazioaz gain, programaren konfigurazio orokorra ere kontuan hartu ahal izango da, lan-ildoen, modalitateen, ikuspegi artistikoen eta proposamenen aniztasunaren arteko edizio orekatua lortzeko.

8. BALDINTZA OROKORRAK

Behin betiko hautaketa zentroaren egutegi, espazio eta baliabide teknikoaren erabilgarritasunaren eta laguntza emateko aukeren mende egongo da.

Hautatutako konpainiek, kolektiboek edo artistek konpromisoa hartzen dute egonaldia **Topic.**ekin adostutako datetan garatzeko, lagatako espazioak eta materialak zaintzeko, zentroko taldearekin komunikazio arina izateko eta prozesuaren amaierako memoria labur bat entregatzeko, testuarekin, irudiekin eta/edo bideoarekin.

Era berean, **Topic.** en logotipoa eta “**Sceniterium – Topic. egonaldi-proiektua**” aipamena sartu beharko dituzte egonaldi-prozesuari lotutako komunikazio-materialetan.

Konpainiek, kolektiboek edo artistek egonaldian garatutako obren edo proiektuen egiletza-, ustiapen- eta erakusketa-eskubideak gordeko dituzte.

Topic. -ek prozesuak dokumentatu ahal izango ditu argazkien, bideoen, elkarrizketen edo programaren artxibo, komunikazio eta memoria-materialen bidez. Material horien erabilera publikoa hautatutako proiektu bakoitzarekin adostutako baldintzen arabera egingo da.

Topic. ek deialdia osorik edo zati batean hutsik utzi ahal izango du, jasotako proposamenak programaren helburu, irizpide edo baldintzetara egokitzen ez badira.

Hautagaitza aurkezteak oinarri hauek osorik onartzea dakar.